

ARTE ESTILOEN HISTORIA

Azterketa

2022/05/10

Izen-abizenak: Nagore Olalde Rodriguez
NAN: 20979410Y
Gradua: Historia

1. Garatu, 700-800 hitzetan, gai hauetako bat (2 puntu)

a) Kolorea artearen historian zehar. Arkitektura, eskultura eta pintura.

b) Heriotzarako artea. Hileta arkitektura, eskultura, pintura.

Heriotzarako artea, estilo eta etapa ezberdinetan maiz agertu zaigun gaia da; hori bai, bakoitzean haren ezaugarri eta berezitasun propioak gehituz.

Hala, heriotzarako artea estreinakoz ikusten dugun kultura egiptoarra da. Izan ere, heriotzari eta hurrengo biziari berebiziko garrantzia ematen zioten. Horregatik, ez da harrizkoa hildakoekin momifikazio prozesu bat aurrera eraman izana. Horretarako, lehenik gorputza garbitu behar da; hurrena, gorputzari ura kendu eta burua nahiz gorputza uztu behar dira (dena den, bihotza gorputzean mantendu behar da psikostasia garatu ahal izateko). Bestalde, gibela, urdaila, hesteak eta birrikak baso kanopoetan gorde behar dira. Lau ontzi hauek Horus Jainkoaren seme bati dagozkio eta bakoitzak haren izen propioa du: Imsety, Qebhsenuf, Duamutef eta Hapy. Momifikaziorako hurrengo pausuan, gorputza ardoarekin desinfektatu beharra dago eta 40 egunez usten zen lehortzen. Gerora, gorputza josi eta apaindu beharra besterik ez dago.

Aurretik aipatutako psikostasiari dagokionez, hil osteko epaiketari deritzo, honetan Hildakoak Anubisen ondoan iristen ziren gelara, hor Horus, Osiris, Isis, Neftis, Ammit, Thot eta Maat jainkoak daude. Bertan hildakoari epaiketa bat egiten diote, hala, hildakoa salbatuko (betirako bizitza lortzea) ote den erabakitzeke. Prozesu hau oso garrantzitsua da maiz irudikatua izan baita arte egiptoarrean.

Egipton heriotzarako arteari dagokionez ezanguratzuena hilobi arkitektura izango litzateke. Hau soilik faraoi edo haien familientzako zen eta hiru sistemen bidez egiten zen; mastabak, piramideak eta hipogeoak. Mastabei dagokionez, haien estruktura 2 mailatan banatuta zegoen: Oinplanoa errektangularra eta goiko aldea. Goiko aldea harriz edo adobez eginda zegoen, fatxadan moldurak dituelarik. Bertan egiten zitzaizkien hildakoei ofrendak.

Piramideen aldetik, hainbat mota daude: piramide eskaileratua, piramide erronboilada eta piramide normalak. Arkitektura mota hau harlanduz zein argamasaz egiten zen, gerora 2 metroko kapa zuri batekin estaltzen zelarik. Esan beharra dago, emakumeentzako piramideak txikiagoak zirela.

Hurrena, Greziako heriotza arteaz mintzo egin beharko genuke. Hemen, ordea, gehien nabarmentzen dena hilobi arkitektura izango litzateke. Izan ere, bertan nekropoliak egiten zituzten; hala, hildakoen omenez haien erretratuzko estelak jartzen zituzten. Hala ere, esan beharra dago nekropoliek Grezian ez zutela berebiziko garrantzirik.

Erromari buruz hitz egingo bagenu, lehen aipatu beharrekoa eskultura litzateke. Izan ere bertako eskulturaren ezaugarri inportanteena errealismoa bilatzen zutela da. Gauzak horrela, garrantzitsua da aipatzea Patrizioentzat hildakoen gurtza oso garrantzitsua eta beharrezkoa zen. Hauek etxean egiten zuten erritua, eta bertako atariko altzari batean gordetzen zituzten arbasoen irudiak (eskulturak/erretratuak), *Imagines maiorum* deiturikoak. Irudi hauei sakrifizioak eskaintzen zitzaizkien, eta eskulturak zeremonietara eramaten zituzten. Bestalde, Poliriok kontatzen zuen maskara hauek hildakoaren fisionomia zeukatela eta larruzalaren kolorea zehaztasun handiz egiten zutenez, oso errealistak zirela. Horrez gain, erretratu polirikoak ere bazeude, hauetan idealizatzen zituzten gobernari politikoak eta

mota askotako erretratuak egiten zituzten: Togata, Thoracata (militarrak), zaldizko erretratuak... Eta azkenik, hilarri eta sarkofagoak ditugu; hauetan gehienbat erliebeak daudelarik. Hildakoen bizitzaren inguruko eszenak errepresentatzen dira eta baita irudi sinbolikoak ere, adibidez animaliak. Baina normalean hilearrian bertan egiten ziren.

Erdi Aroko artean Arte Kristaua dugu; eta hemen hilobi arkitektura dexente ikus dezakegu. Izan ere, honen lehen unitate kristauak Erromatar Inperioan sortu ziren, eta horregatik lurperatzen dituzte gorpuak haien erara (harresi kanpoko nekropolitan). Normalean kristauak ez zuten hildakoaren gorpua ehorzten, eta posible bazen sarkofago batean hilobiratzen zen. Erroman eta beste hirietan beste tipologia bat eratu zen lurra hobeto zedin, honi katakunbak deritze. Hauek galeria luze, ezta eta ilunak dira, eta pasabideak ambulacruma ziren. Gorpua bertan sartu, eta harri batekin estaltzen zuten. Beste batzuetan kubikula izeneko oinplano karratueta jartzen ziren. Katakunbetan ez zen otoitz egiten. Leku hotzak eta ilunak, eta familia eta komunitatea hildakoa lurperatzera joaten ziren, eta zeremonia kanpoan egiten zen, beraz, gorpuak uzteko pasiloak ziren soilik. Horrez gain, mausoleoa eta martyriumak ere bazeuden, oinplano zirkularrekoak. Bertan, santu edo pertsona garrantzitsuak lurperatzen ziren. Martyriumean ez da gorpurik egoten santu baten omenez egiten baita.

Eskulturari dagokionez, sarkofagoetan erliebeetan errepresentatzen dira estrigleak (arimaren garbitasuna irudikatzeke), Imago clipeatan hildakoaren erretratua agertzen da (sarkofago paganoetan mesua kristianoa dena).

Pinturaren aldetik, normalean katakunbetako paretetan egiten zen, eta horregatik kristauak heriotzaren ondoren itzaroten zituzten gauzekin erlazonatutako gaiak agertuko da. Besteak beste, agapea, adan eta eva, kristoren bataoia... irudikatzen dira.

Hurrena Arte Gotikoa dugu, hemen gauza gutxi ditugu aipatzeko. Baina hala ere, komentatu dezakegu harrizko eskultura gotikoak zeudela, bai portaletan bai hilobietan. Bestalde, burgesiaren sorkuntzarekin batera heriotza artearen kontsumoa igoko da, besteak beste: hileta monumentuan, sarkofagoetan, kapera pribatuetan... Azkenik Aro Berria daukagu, eta hor Errenazimendua agertzen zaigu. Baina, etapa artistiko honetan ez dugu aipatu beharreko gauza askorik.

2. Garatu ezazu, 500-600 hitzetan, bloke hauetako bat. (Puntu 1)
Bi irudi hauen iruzkina egin hurrengo kontzeptuak kontuan hartuz: 6

A) Nebamún hilobia, Egipto // Santo Domingo de Silos monastegiko klaustroa



Egiptoko Nebamún hilobiari dagokionez, esan beharra dago hilobiko irudi bat dela iruzkindu beharreko irudia. Elementu formalen aldetik, lehenik, marrazketa kolorearekin gainjartzen dela esango nuke; irudiak lerroz mugatuta baitaude. Hala ere, oso artelan koloretsua da eta kolore hotz zein beroen arteko talka nabaria dago. Bestalde, perspektiba zein ihes puntuen falta oso nabarmena da. Hala eta guztiz ere, badago ikuspegi hierarkikoa deritzona; honen bitartez, garrantzia figura handienei ematen zaio. Hau, adibidez, bigarren eszenan ikus dezakegu, non emakumeak gainontzeko gizonak baino txikiago ageri diren. Horrez gain, sakontasun efektu handirik ez dagoen arren, hondoko hieroglifikoek sakonera apur bat ematen diote pinturari; bertan gainera, Nebamúnen bizitzaren kontaketa dago. Aipatu beharreko beste ezaugarri garrantzitsu bat, simetria eta zentralitatearen erabilera izango litzateke; esaterako figura gehienak posizio berdinean agertzea. Gainera, eta normala den moduan, aurrekotasun legearen erabilera daukagu, gorputzak aurreraka dauden bitartean buruak alderantz begira baitaude. Aipagarria da ere, figurek oso espresio gutxi erakusten dutela, honek hieratismoa sortzen duelarik. Pintura hau, Inperio Berrikoa dena, Antzinako Egiptoko arte estiloari dagokio. Horregatik, arte estilo horretako ezaugarriak betetzen ditu; eta batzuk aurreko elementu formaletan aipatu ditudan arren, hurrengoak dira ezaugarri garrantzitsuenak: aspektiba, ikuspegi hierarkikoa, aurrekotasun legea, polikromia, 18 laukitako legea... Horrez gain, artelanaren gaiari dagokionez, argi eta garbi heriotzarekiko garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, pintura hilobi bat apaintzeko funtzioarekin egin zen. Garai hartan, berebiziko garrantzia ematen zioten hilobiak eraiki eta prestatzeari. Hala, heriotz artearen bitartez, hildakoaren izen ona azpimarratu eta jainkoei gurtz egiten zitzairen. Esan beharra dago hau horma pintura bat dela, teknika mistoz egindakoa alegia. Horretarako, horma freskoa balitz prestatzen zuten gero temple pinturarekin marrazteko asmoz.

Hurrengo irudia, Santo Domingo de Silos monastegiko klaustroan dagoena, Santo Tomasen zalantza erliebeari dagokio. Elementu formalen aldetik, aurretik iruzkindutako Nebamúnen hilobiko pinturarekin antzekotasun handiak dituela ikus dezakegu. Kontuak horrela, baxu erlibe

honetan ez dago sakontasunik. Bestalde, irudikapen forma eskematikoa da eta markoko espazio osoa figuraz okupatuta dago (marko legea jarraituz). Artelan honetan, aurrekoan bezala, aurrekotasun legea mantentzen da. Horrez gain, konposizioaren aldetik, erliebea hiru lerro horizontaletan banatzen da bakoitzean figura talde bat dagoelarik. Artelan honek aurreko pintura egiptoarrarekin duen beste antzekotasunetako bat ikuspegi hierarkikoa izango litzateke. Izan ere, Jesus nabari handiago dago errepresentatuta, eskua altxatuta duela. Horrek gainontzeko beste figuretatik (apostuluak) desberdintzen du, garrantzi maila handiagoa ematen diolarik. Beste berdintasun bat figurek erakusten duten hieratismoari dagokio. Jarraitzeko, eskultura hau estilo erromanikoan sartzen dugu; horregatik, estiloari dagozkion ezaugarriak aurkitzen ditugu. Besteak beste: proportzioen aldaketa, formen hieratikotasuna, perspektiba hierarkikoa, ikuspegi frontala, mugimendu eza edo eskasa, pertsonaiak modu geometriko eta simetrikoan kokatzea, markoaren legea... Erliebe honen gairen aldetik, argi eta garbi erlijioso da. Izan ere, ebanjelioetatik datorrela esan dezakegu; Kristo Berpiztua agertzen baitzaie apostoluei. Kontua da Santo Tomas haien artean ez dagoenez, ez duela berpizkundean sinesten. Horregatik, zauriak ukitzen dizkio, egia delaz jabetzeko. Gaiari dagokionez, maila batean behintzat, parekotasun pare bat ditu aurreko pinturarekin; biek lantzen baitute heriotza eta heriotza osteko bizitza. Hala ere, esan beharrik ez dago bi kulturetan oso era ezberdinean lantzen zela heriotzaren gaia. Azkenik, teknika zein euskarriari dagokionez, esan dezaket erabilitako materiala kareharria dela, eta zizelkatzeko teknikaren bidez egindakoa da.

